


Denbora.

2 Puzzlea

Nire gazteluaren argazkia puskatu du anaiak, jolasean ari zela. Berriro ere osatzen hasi naiz, baina azken piezak non jarri asmatu ezinda nabil.



Erantzunak: **1.-** Errugbiko jokalaririk zerra, ekialdetarrek txapela eta indiarrek soinua. **2.-** 1-B, 2-H, 3-C, 4-A, 5-F, 6-E, 7-D, 8-G eta 9-I. **3.-** Athletic, Osasuna, Erreal eta Alaves. **4.-** (C).

KB*03

(B)		(F)	
(C)		(G)	
(D)		(H)	
(A)		(E)	
		(I)	

-pasa


3 Ezkutuko hitza

Mikelek bere gustuko lau futbol talde animatu nahi ditu, eta pankarta bat egiteko asmoa du. Ander lagunak letrak txukun-txukun egiteko patroiak eman dizkio, baina denak nahasirik. Lagunduko al zenioke letrak futbol taldeen izenen ordenean jartzen?

AHTE
ILCT



SAS
OUN
A



REL
EL
EAA




VESA
LA



4 Itzalak

Herriko jaien hasiera iragartzeko jaurti zuten suziaren irudia da ondorengoa. Baina itzal horietatik zein da suziari dagokiona? **Ea asmatzen duzun!!**



jolasa

Gora ezkonberriak!

Adi-adi entzun behar duzu kontatuko dizuten istorioa. Bestela, ez duzu jakingo lekuz noiz aldatu behar duzun.



1 Aulkiak zirkulu bat osatuz jarri behar dira, eta bat ez beste denak eseri egingo dira. Esertzen ez dena erdian jarriko da, eta narratzailea izango da.

2 Narratzaileak ezkontzako gonbidatu baten rola emango die jolasten ari diren guztiei, baita bere buruari ere (amaginarreba, laguna, lekukoa...). Pertsonaia mota bakoitzetik bi behar dira, gutxienez (bi lagun, bi lekuko...).

3 Bakoitzak nor den dakienean, asmatutako ezkontza bat kontatzeari ekingo dio narratzaileak. Horrek gonbidatuak aipatzen dituenean, jolaseko gonbidatu aipatuak lekuz aldatuko dira, ziztu bizian. Aldaketa egiten ari diren bitartean, narratzailea libre dagoen leku batean esertzen saiatuko da.

4 Jolasak dirauen bitartean narratzaileak 'gora ezkonberriak!' esaten badu, guztiak altxatu eta biribilaren erdira joan beharko dute, eta 'gora!' oihu egin. Gero, ahal duten lekuan eseriko dira berriro.

5 Zutik geratzen denak istorioa kontatzen jarraitu behar du.